



2018ko Andre Mari Zuriaren jaietan parte hartzen duten blusa eta neska taldeei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak.



1 DEIALDIAREN XEDEA

2018ko Andre Maria Zuriaren jaietan blusa eta neska taldeen parte hartzea bultzatzeko asmoz Gasteizko Udalak bere aurrekontuko kredituen kontura diru-laguntzak emateko deialdia eta arauak jasotzen dira oinarri hauetan.

2 DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KONTZEPTUAK

Ondorengo kontzeptuetara zuzenduko dira diru-laguntzak:

- Musika girotzea: taldeei lagunduz espazio publikoan zuzenean jotzen duten musika-taldeak.
- Aurkeztutako jai-programa osatzen duten jarduera egiteko ezinbestekoak diren materialak edo azpiegiturak alokatu edo erostea.

Ez dira diruz lagunduko ondorengo gastuak:

- Janaria edo edaria.
- Bileretara joateko sortutako gastuak.
- Erregaien gastuen kasuan, bakarrik onartuko dira desfileetan parte hartzeak sortutako erregaiaren gastuak.

3 ESKATZAILEAK

Gutxienez 6 blusa eta neska talde ordezkatzeko dituzten pertsona juridikoak izan ahalko dira araudi honetan araututako diru-laguntzen onuradun, aurrez hala eskatzen badute, eta baldin eta elkarte gisa legez eratuta eta dagokien Erregistro Ofizialean erregistratuta badaude eskabideak aurkezteko epea amaitzean, eta egoitza Gasteizko udalerrian badute.

Ezingo dute onuradun izaera eskuratu beren barruan gizon eta emakumeen presentzia eta parte-hartzea berdintasun-egoeran gauzatzea galarazten duten elkarteek, salbu eta emakumeek bakarrik osatutako taldeak izanik, erabakiak hartzeko partaidetza-esparruetan ordezkari txikiak izateagatik emakumeek jasaten duten ezberdintasun-egoera zuzentzeko helburua badute.

Diru-laguntzen deialdi publikoan parte hartu ahal izateko, entitate eskatzaileek bete behar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Gasteizko Udalarekikoak bete behar dituzte. Eskabidea aurkeztean denean ez ezik, diru-laguntzaren prozesu osoan ere bete behar da bete behar hori —diru-laguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean—.

4 AURREKONTUKO KREDITUA ETA GEHIENEZKO KOPURUA

Deialdi honen ildotik ematen diren diru-laguntzak 2018ko aurrekontuetako 2312.03.3381.489.11 partidaren kontura joango dira (75.000,00 euroko kreditua izango du).



5 ESKABIDEAK ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

5.1 Aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea hamar egun naturalekoa izango da, oinarri hauei dagokien deialdiari buruzko laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da epea.

5.2 Argibideak eta agiriak

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia Gasteizko Udalaren webgunean egongo da eskuragarri (www.vitoria-gasteiz.org), baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere, ordutegi ofizialaren barruan.

5.3 Tramitazioa

Eskabideak aurrez aurre aurkeztu ahalko dira, herritarrei laguntzeko bulegoetan, edo Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan, helbide honetan: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>; orobat aurkeztu ahalko dira legez aurreikusitako gainerako moduetan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Oinarri hauetan ageri den eredia erabili beharko da eskabidea egiteko (vitoria-gasteiz.org/subvenciones): (vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak).

Eskabide bakoitzarekin batera aurkeztu beharko dira oinarri hauetan eskatzen diren agiriak.

5.4 Diru-laguntzaren eskabidea zuzen formalizatuta ez bada go edo daturen bat falta bazaio, edo eskatutako agiriren bat aurkezten ez bada, entitate eskatzaileari akatsa konpontzeko eskatuko zaio, eta adieraziko zaio hala egin ezean eskabidea beste barik artxibatuko dela.

5.5 Gasteizko Udalak egoki irizten zaizkion argibide eta agiriak eskatu ahalko dizkie entitate eskatzaileei, aurkeztutako diru-laguntza eskabideak balioesteko.

5.6 Entitate eskatzaileek aurkeztu beharreko agiriak:

- Diru-laguntzaren eskabidea, udalaren inprimaki normalizatua baliatuz.

Kultura Zerbitzuari diru-laguntza eskatzen zaion lehenengo aldia bada, Elkartearen estatutuen fotokopia eta Erregistro Ofizialean izena emanda duela eta legez eratuta dagoela egiaztatzen duten agiriak.

- Kultura Zerbitzuari diru-laguntza eskatzen zaion lehenengo aldia bada, banketxeak emandako ziurtagiria, kontu zenbakia eta titularraren izena zehazten dituen –elkartearak berak izan beharko du titular, eta ez inongo beste pertsona fisikok.

- 2018ko Andre Maria Zuriaren jaietan eta Santiago egunean (uztailak 25) espazio publikoan egin nahi den jarduera-programa.

- Entitate eskatzailea osatzen duten eta 2018ko Andre Maria Zuriaren jaietan parte hartzeko asmoa duten blusa eta neska taldeen zerrenda (I. eranskineko ereduari jarraituz).

- Talde bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, oinarri hauetan ezarritako gutxienezko kide kopurua betetzeari dagokionez (II. eranskineko ereduari jarraituz).

6 AGIRIAK AURKEZTEKO BIDEAK

• Aurrez aurre

1.1.1 Dokumentazioa euskarri digitalean aurkeztea

Proiektu teknikoak eta gainerako agiriak euskarri digitalean aurkeztu ahalko dira, formatu hauetan: USB memoria, CD, DVD edo antzekoak.



Halakoetako artxibo grafiko eta testu-artxiboek pdf formatuan egon beharko dute, eta ez dute karpetarik eduki beharko, baizik eta agiri guztiak maila berean bilduta.

Lan edo agiri topografikoen helburua oinarri kartografikoa izatea bada, dwg eta pdf formatuetan aurkeztu behar dira.

Dokumentazioa euskarri digitalean aurkezten delarik, dagokion erantzukizunpeko aitortpena erantsi beharko zaio —Udalaren webgunetik deskarga daitekeen inprimakia baliatuz—. Eskabideak behar bezala izenpetuta edo ontzat emanda egon beharko du.

Euskarri digitala ez zaio itzuliko entitate eskatzaileari.

1.1.2 Dokumentazioa paperean aurkeztea

Agiriak paperean aurkeztuz gero, DINA 4 edo DINA 3 tamainakoa izan behar du, eta herritarrei laguntzeko bulegoan digitalizazioa errazteko, nahitaezkoa izango da orri solteak aurkeztea, grapa, klip edo multzokatzeak inolako sistemarik erabili gabe.

Eskabideari paperezkoa ez den euskarri batean dagoen dokumentazioa erantsi behar bazaio, eta beraz, hori digitalizatzerik ez badago, karpeta batean jasoko da, edukiaren indizearekin, eta kanpoaldean etiketa jarrita, deialdian adierazitako diru-laguntzen ildoak zein udal zerbitzuri dagokion zehaztuz.

● **Egoitza elektronikoaren bidez**

Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahalko da, erregistro elektronikoaren bidez. Horretarako identifikazio-txartel digitala erabili beharko da, <https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org/helbidean ezarritakoari jarraituz>.

7 DIRU-LAGUNTZA EMATEKO BALDINTZA ETA IRIZPIDEAK

Nolanahi ere, onuradunek **betekizun** hauek bete beharko dituzte:

- Entitate eskatzaileek gutxienez 6 blusa eta neska taldeek osatuak izan beharko dute.
- Blusa eta neska taldeetat joko da gutxienez 60 kide dituen, musika girotzea duena, eta jaietako egun guztietan eta Blusen Egunean ateratzen dena.

Hala ere, eta salbuespenez, talderen bat kideen gutxieneko kopurura ez iristea onartuko da, baldin eta historikoki Andre Maria Zuriaren jaietan parte hartu badu.

- Entitate eskatzaileek Blusa eta Nesken Egunerako zein Andre Maria Zuriaren jaietarako jarduera-programa aurkeztu beharko dute.

Jarduera horiek herritarrei oro har zuzendutakoak izna beharko dute nahitaez, eta zerikusia duten eta indarrean dauden udal plan eta araudiak bete.

Bereziki balioetsiko dira genero-berdintasuna sustatzen duten jarduerak, ikuskizunak, kontzertuak edo bestelako jarduera-motak, espazio publikoan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin laguntzen dutelarik. Orobat, emakumeen partaidetza bereziki sustatzen dutenak, eta jaietan edonolako indarkeria matxista prebenitzeko eta horrelako kasuetan esku hartzeko baliabideak garatu, ezarri eta hobetzea dakartenak.

Entitate eskatzaileen programetako jarduerak bat egiten badute denboran eta espazioan, zaharrenek izango dute lehentasuna.

Entitate eskatzaileen programetako jarduerak antzeko edukia badute, edo edukiak ezberdinak izan arren denboran eta espazioan bat egiten badute eta aurreko paragrafoan bilduta ez badaude, Kultura Zerbitzuak irizpide hauei jarraituko die jarduera aukeratzeko:

- Jardueraren kalitatea.
- Jai programari eta espazioari egokitzea.
- Nori zuzenduta dagoen.
- Genero-berdintasuna bultzatzen duten proposamenak izatea, partaidetza orekatua eta gizarte bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa lortzeko balioen aldaketa sustatuz.



Entitate eskatzaileek garaiz eta behar bezala eskatu beharko dizkiote Kultura Zerbitzuari beharrezko baimena eta lizentzia, eskatutako jarduera-programa espazio publikoan egiteko.

Deialdi honetan parte hartu nahi duten entitateek aurrez aurre aurkeztu beharko dituzte programa eta eskabidea herritarrei laguntzeko bulegoetan, edo Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez —<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>— nahiz legez aurreikusitako gainerako moduetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen ildotik.

- Eskabidea eta oinarri hauetan eskatzen diren gainerako agiriak epe barruan aurkeztea.
- 2017. urtean diru-laguntza jaso duten entitateentzat, urte horretako gastuen justifikazioa aurkeztua izatea.

Balioespena:

Eskabideak balioesteko batzordeak egingo du eskabidea egiten duten elkarteei diru-laguntza esleitzeko proposamena, irizpide hauek baliaturik:

- 60.000 euro: Entitate eskatzaile bakoitzak diru-laguntza finkoa jasoko du hura osatzen duen blusa eta neska talde bakoitzeko, musika-girotzea badute. Parte-hartzen duen talde bakoitzari ordaintzen zaion kopurua entitate eskatzaile guztien artean aurkeztutako taldeen kopuru osoaren arabera izango da.
- 15.000 euro: Entitate eskatzaile bakoitzak diru-laguntza jasoko du aurkeztzen duen jai-programaren balioespenaren emaitzaren arabera, irizpide hauek kontuan izanik:

Programa osatzen duten jardueren kopurua: 10 puntu.

Jarduera kopuru handiena duen programak lortuko du gehieneko puntuazioa, 7. puntuan ezarritako betekizunak betez gero. Gainerakoa modu proportzionalan kalkulatu da.

Irizpide hauek aintzat harturik balioetsiko dira jarduerak, banan-banan: 15 puntu.

- Jardueraren kalitatea: 3 puntu.
- Jardueraren antzintasuna: 2 puntu.
- Jai programari eta espazioari egokitzea: 5 puntu.
- Nori zuzenduta dagoen: 5 puntu.

Programa bakoitzaren jarduera guztiak balioetsi eta batez besteko aritmetikoa kalkulatu da; horixe izango da atal honetako azken puntuazioa.

Atal honetako zenbateko osoa (15.000 euro) proportzionalki banatuko da, lortutako puntuazioaren arabera.

8 LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Kontuan izanik diru-laguntza honen xedea eta helburua, oinarri hauetan ezarritako baldintza eta betebeharrak bakoitza eta guztiak betetzen dituzten eskaerak jasoko dituzte diru-laguntzak, harik eta aurrekontu osoa gastatu arte, kasua bada. Emateko prozedura mistoa izango da: hainbanaketa eta norgehiagoka.



9 INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA

9.1 Behin eskabideak jaso eta tramiterako onartu, eta kasu bakoitzean eskatutako betebeharrak bete direla egiaztatu ondoren, balioesteko txosten teknikoa eta ebazpen-proposamena idatziko dira, eremu bakoitzari dagokionez eta ezarritako irizpideen arabera.

9.2 Udal langileek osatuko dute organo instrukzio-egilea, eta horrek ofizioz egingo ditu eskatutako diru-laguntzen ebazpen-proposamena taxutzeko baliatuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduerak oro.

9.3 Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, batzorde teknikoa eratuko da, Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko zuzendariak, Kultura Zerbitzuko buruak eta zerbitzu horretako bi teknikariek osatuta. Batzorde horrek Tokiko Gobernu Batzarrari bidaliko dio ebazpen-proposamena, hark ebatz dezan.

10 EBATZI ETA JAKINARAZTEKO EPEA

10.1 Gehienez hiru hilabeteko epean emango da ebazpena, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunetik kontatuta. Epe hori berriazko ebazpenik eman gabe igaroz gero, diru-laguntza eskuratzeko eskabidea ezetsizat joko da.

10.2 Diru-laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena jakinarazteko komunikabideak ALHAO eta Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa izango dira.

10.3 Diru-laguntzak emateko nahiz ezesteko erabakiak administrazio-bidea agortuko du, eta horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahalko da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, BI HILABETEko epean ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsioa, erabakia hartu duen organoari zuzendua, HILABETEko epean ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; horren berriazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, BI HILABETEko epean aurkeztu ahalko du administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsioa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik aurrera, edo, ebazpena ustezkoa bada, SEI HILABETEko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

11 ERAKUNDE ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Deialdi honetan araututako diru-laguntzen entitate onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte, nolatan ere:

- Diru-laguntza zertarako eman zaien, hartarako baliatzea.
- Laguntzak berekin dakartzan betebeharrak eta baldintzak bete direla egiaztatzea Kultura Zerbitzuaren aurrean.
- Diruz lagundutako jardueraren segimendua egite aldera, eskatutako agiri guztiak ematea Udalari.
- Gasteizko Udaleko Kultura Zerbitzuak nahiz Kontu-hartzaitzak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo eskumena duen beste edozein organok eskatutako informazio oro ematea.
- Diruz lagundutako jardueraren barruan egin nahi den edozein aldakuntza Udalari jakinaraztea. Entitate onuradunek jardueran aldaketak egitea erabaki ahalko dute, eta ekintzak bertan behera utzi ahalko dituzte (zigorrik gabe), baldin eta ezinbesteko kasua bada, edo gizarte ekitaldi garrantzitsuren batekin elkartasuna adierazteko bada, edo antzeko kasuren bat gertatzen bada.
- Entitate eskatzaileek I. eranskinean adierazitako talde guztiek hartu beharko dute parte desfileetan, jai-programa tradizionalari jarraituz.
- Blusen eta Nesken Batzordeak antolatutako ohi dituzten 17:00etako joaneko desfilea eta 20:30eko itzulerakoa; beraz, deialdiaren 7. oinarriaren arabera, lehentasuna izango du, entitate eskatzailea izanez gero.



- Horrenbestez, gainerako entitate eskatzaileek entitate horrekin ados jarri beharko dute ordena eta parte hartzeko arauak ezartzeko.
- Adostasunik ez bada, gainerako entitateek aurreko paragrafoetan aipatutako joan-etorriak oztopatzen ez dituen beste alternatiba bat aurkeztu beharko diote Udalari, eta onetsiz gero, jai-programa ofizialean sartuko da, herritarrek horren berri izan dezaten.
- Joan-etorrietan, blusa eta nesken taldeetako kideek jai giroko itxura eman beharko dute nahitaez, musikaz eta dantzaz, eta herritarrak jaira animatu; alkohol kontsumoaren erakustaldi orokor eta gehiegizkoak saihestu beharko dituzte, eta eraso eta portaera matxistekin zero tolerantzia izan beharko dute.
- Taldeek kantu matxista eta homofoboak ez abesteko konpromisoa hartuko dute.
- Entitate eskatzaileek I. eranskinean adierazitako talde guztiek Gasteizko Udalak indarkeria matxistari erantzuteko duen protokoloan ezarritakoa bete beharko dute, eta hartzen diren neurriak errespetatu, baldin eta Andre Maria Zuriaren jaietan aktibatzen bada.
- Herritarrekiko errespetuagatik, elkarren segidan doazen taldeen artean 20 metrotik gorako hutsarterik ez uzteko konpromisoa hartuko dute taldeek.
- Entitate eskatzaileek desfileetan erabiltzen dituzten ibilgailu guztiek zirkulazioari buruzko araudia bete beharko dute, eta Udaleko Herritarren Segurtasunaren Sailak agindutakoari jarraitu beharko diote horiek mugitzeko.
- Ekialde institutuko aparkalekua erabiliz gero, Udaleko Kultura Zerbitzuak adierazitako ordutegiak eta araudia bete beharko dira ezinbestean.
- Debehatuta dago material piroteknikoa erabiltzea.
- Debehatuta dago edonolako bazterkeria edo desberdintasuna (sexua, generoa, orientazio sexuala, identitate sexuala, arraza, klase soziala, erlijioa... direla kausa) sor dezakeen jarduera oro, musika girotzea barne.
- Aurreko betebeharrak ez betetzeak diru-laguntza osoa edo zati bat Gasteizko Udalari itzuli beharra ekarri ahalko du berekin.
- Aipatutako betebeharrak ez betetzea arau-hauste arintzat, larritzat edo oso larritzat jo daiteke, eta Diru-laguntzei buruzko UDAL ORDENANTZAREN VII. kapituluaren aurreikusitako zigorrak ezartzea ekar dezake.

12 UKO EGITEA

Diru-laguntza emateko ebazpena eman ondoren, entitate onuradunak hari uko egitea eska dezake herritarrei laguntzeko bulegoetan, eskabide normalizatuaren bitartez.

Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea amaitu baino lehenago aurkeztu beharko da uko-agiria, eta ondorioa izango du Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko zinegotzi ordezkariak onartu ondoren; kasua hala balitz, itzuli egin beharko liriteke jasotako diru-kopuruak.

13 DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEAK

13.1 Diru-laguntza zatika ordainduko da: diru-laguntza osoaren % 80 justifikazioa aurkeztu baino lehen ordainduko da, eta gainerako % 20 jarduera amaitzen denean eta jarduera osoa gauzatu dela justifikatu ondoren.



13.2 Banku-transferentziaren bitartez ordainduko da diru-laguntza, onuradunak eskabidean horretarako adierazten duen kontu korrontean.

13.3 Kasu hauetan ez da diru-laguntzarik ordainduko: entitate onuradunak Udalak emandako diru-laguntzaren bat justifikatu gabe baldin badu, edo entitateak aurreko diru-laguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaiolarik. Ezingo da diru-laguntza ordaindu harik eta onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, ezta dirua itzultzea bidezkoa dela ebatzi delarik zordun denean ere.

14 DIRU-LAGUNTZAK JUSTIFIKATZEA

14.1 Justifikatzeko epea

Emandako diru-laguntzak justifikatzeko epea hiru hilabete izango da, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik.

14.2 Justifikatu beharreko zenbatekoa

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren % 100 justifikatu beharko da, ez Gasteizko Udalak emandakoa bakarrik, eta berariaz adierazi beharko da zein kostu egozten zaion Udalak emandako diru-laguntzari.

Beste ente publiko edo pribatu batzuek finantzatzen badute proiektua edo jarduera, eta/edo baliabide propioak erabiltzen badira, hori justifikatu eta kostu osoa egiaztatu beharko da. Halakoetan, azken justifikazioarekin batera adierazpen bat aurkeztu beharko da, I-J eranskina (beste erakunde batzuei egotzitako gastuen zerrenda) baliatuz, eta bertan diruz lagundutako proiektuari egozten zaizkion gastuak oro zerrendatuko dira, izenak zehaztuz.

14.3 Justifikatzeko sistema

Diru-laguntzaren onuradun diren pertsonak edo entitateek justifikazioko kontua aurkeztu beharko dute jasotako diru-laguntza justifikatzeko, ondoren adierazitakoari jarraituz. Ondoren adierazten diren eranskinek udalaren web-orrian (vitoria-gasteiz.org/subvenciones); (vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak) agertzen diren ereduak jarraitu beharko diete:

Justifikazioko kontuak alderdi hauek jaso beharko ditu:

- a) Egindako proiektuaren azalpen-txostena, lortutako emaitzen balioespena barne.
- b) Jardueren kostua justifikatzeko txosten ekonomikoa. Xehetasun hauek jaso beharko ditu:
 - Egindako gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, zeinean datu hauek zehaztuko baitira: zorduna, zenbatekoa, emate-data eta ordainketa. Horretarako, pertsona edo entitate onuradunak koadro batean zehaztuko ditu emandako diru-laguntzari dagozkion fakturak, kontzeptuka bilduta (II-J eranskinaren arabera).
 - Diru-sarrera eta gastuen balantzea, III-J eranskinaren arabera.
 - Diruz lagundutako jarduerari dagozkion jatorrizko fakturak, edo faktura horien kopia konpultsatuak, eta ordain-agiri horiek laguntzak xede duen helburua betetzeak sortu dituela egiaztatzeko agiria zein agiri horiek eskuragarri daudela egiaztatzeko agiria, IV-J eranskinaren arabera.
 - Emandako diru-laguntza osoa justifikatzen duten fakturak aurkeztu beharko dituzte, eta gutxienez emandako kopurua estaltzen dutenak.



- Egindako jarduerak beste modu batez egiaztatu ezin direnean bakarrik onartuko dira jaso-izanaren agiriak. Jaso-izanaren agiria izenpetzen duen pertsona ezin izango da enpresaburua edo profesionala izan, bestela dagokion faktura egin eta eman beharko bailuke ezinbestean.

Jaso-izanaren agiriak datu hauek bildu behar ditu:

- Jaulkitzailearen eta jasotzailearen izen-deiturak, IFZ eta helbidea.
- Eragiketa edo zerbitzuaren deskribapen zehatza, eta prezioa, guztira.
- PFEZaren atxikipena (dagokion zerga agentzian egindako atxikipena sartu izanaren agiria erantsi behar da).
- Tokia, data eta jasotzailearen sinadura.
- Langileen gastuak nominaren eta onuradunaren konturako Gizarte Segurantzaren TC2 agiriaren bidez justifikatu beharko dira. Gastua diruz lagundutako jarduerari dagokiola justifikatzen duen erantzukizunpeko aitortza aurkeztu beharko da nominekin eta TC agiriarekin batera, egotzitako denbora eta kopuruak zehaztuta (V-J eranskina). Kasua bada, elkartek proiektua gauzatzeko soldatapeko langilerik izan ez duela adierazten duen zinpeko aitortza (VI-J eranskina) aurkeztu beharko du.
 - Onuradunaren adierazpena, eta bertan zehaztuta diruz lagundutako jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo diru-laguntzen zerrenda, zenbatekoa eta jatorria zehaztuta; kasua bada, bestelako laguntzarik eskuratu ez duela adierazi beharko du (VIII-J eranskina).
 - Diru-laguntzen deialdi honetan ez da zeharkako kosturik onartuko.

12.3 Emandako diru-laguntzaren justifikazio eza edo justifikazio eskasa:

Justifikatzeko obligazioa ez betetzeak nahiz behar bezala ez justifikatzeak jasotako kopuruak eta dagozkien interesak itzuli beharra ekar lezakete berekin, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

15 PUBLIZITATEA

Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista zaindu beharko dute pertsona eta entitate onuradunek argitalpen orotan, batez ere publizitate- eta komunikazio-euskarrietan, eta berdintasuna, dibertsitatea eta rol-aniztasuna sustatzen dituzten hizkuntza eta irudiak erabili. Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen ildotik, egiten diren emanaldietan, pertsonak ez dira agertuko duintasun handiago edo txikiagoz horniturik sexuaren, orientazio sexualaren edo identitate sexualaren arabera, ezta objektu sexual huts gisa ere. Genero-indarkeria justifikatzen, hutsaltzen edo hartara zirikatzen duten edukiak ere ezingo dira zabaldu. Alegia, estereotipo sexistak saihestuko dira, eta sexuen, rolen eta genero-identitateen dibertsifikazioa sustatuko.

Bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira, gaztelania eta euskara, diru-laguntza jaso duen programa edo jardueraren publizitatea egiteko lantzen diren kartel, testu eta dokumentuetan. Era berean, diru-laguntza jaso duen jardueraren inguruko sustapen-ekitaldi publikoek ere elebidun izan beharko dute, eta euskara eta gaztelania erabili beharko dira, ordena horretan.

Aurreko betebeharrak ez betetzeak diru-laguntza osoa edo zati bat Gasteizko Udalari itzuli beharra ekarri ahalko du berekin.



16 AZPIKONTRATAZIOA

Pertsona eta entitate onuradunek jarduerak azpikontratatu ahal izango dituzte, Diru-laguntzei buruzko Udal Ordenantzaren 16. artikuluan eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 29.2 artikuluetan xedatutakoaren ildotik.

17 PROGRAMA ALDATZEA

Diruz lagundutako programa edo jardueran funtsezko aldaketarik egin nahi izanez gero, baimena eskatu beharko zaio Gasteizko Udalari, berariaz eta alde zurretik. Berariaz baimentzen delarik baino ezingo da gauzatu aldaketa. Oro har, administrazioak erantzuten ez badu aldaketa ezetsi egin dela ulertu beharko da.

18 BESTE LAGUNTZEKIKO BATERAGARRITASUNA

Gasteizko Udalak ematen dituen diru-laguntzak beste administrazioek edo entitate publiko nahiz pribatuek emandakoekin bateragarriak izango dira, diru-laguntzaren arlo bakoitzeko oinarri bereziek bestelakorik ezarri ezean.

Dena den, diru-laguntzen eta bestelakoren bitartez lortutako finantzazioaren kopuru osoa ezin izango da diruz lagundutako jarduera edo programaren kostu osoa baino handiagoa izan.

19.- DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEA

Jasotako diru-laguntza itzultzeko eskatu ahalko da, beharrezko den dosierra izapidetu ondoren, kasu hauetan:

- Eskabidean emandako datuak edo aurkeztutako agiriak faltsutu egin badituzte.
- Diru-laguntza zertarako eskatu duten, hartarako erabili ez badute.
- 11. oinarrian –eta, oro har, oinarri hauetan– ezarritako betekizunak urratu badira.
- Diru-laguntzei buruzko Udal Ordenantzaren 20. artikuluan adierazten diren kasuetan.

Halaber, elkarte onuradunek itzuli egin beharko dute garatutako jardueraren kostuaren gainean lortutako soberakina.

20.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

Gasteizko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantzan xedatutakora egokituko da arau-hauste eta zigorren erregimena.



21.- INTERPRETAZIOA ETA APLIKAGARRI DIREN ARAUDIAK.

Oinarri hauek interpretatzean sortzen diren zalantzak Tokiko Gobernu Batzarrak ebatziko ditu.

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, Gasteizko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Udal Ordenantza aplikatuko da, baita Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta horren araudia ere —uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia—, eta aplikagarri diren gainerako arauak.

Oinarri hauetan eta udal plan hauetan aipatzen diren udal ordenantza eta araudiak: **Berdintasun Plana**, Euskara Plana, **Udalar****en Gazte Plana**, **Mugikortasun Plana**, **Irisgarritasun Plana**, eta abar; horiek guztiak Gasteizko Udalaren web-orrian kontsultatu daitezke: **www.vitoria-gasteiz.org**



I. eranskina

Entitate eskatzailea osatzen duten eta 2018ko Andre Maria Zuriaren jaietan parte hartzeko asmoa duten blusa eta neska taldeen zerrenda.

Entitate eskatzailearen
izena _____

Taldearen izena	Kide kopurua

Vitoria-Gasteizen, 2018ko _____ aren (e)an.

Izenpea eta elkartearen zigilua:



II. eranskina

Erantzukizunpeko adierazpena, 2018ko Andre Maria Zuriaren jaietan parte hartzeko asmoa duten blusa eta neska talde bakoitza osatzen duten kideen kopurua betetzeari dagokionez

Izen-deiturak

NAN zk.

talde honen izenean eta ordezkari gisa: IFZ:.....

adierazten du oinarri hauetako 5.6 puntuan ezarritako gutxienerako kide-kopurua betetzen duela.

Vitoria-Gasteizen,

(e)an.

Izp.:

Datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa	
Tratamenduaren arduraduna	Vitoria-Gasteizko Udala IFK P0106800F
Tratamenduaren arduradunaren kontaktua	Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz Tel.945161616-www.vitoria-gasteiz.org
Datuak babesteko ordezkariaren kontaktua	lop@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren helburua	Blusa eta neska taldeentzako diru-laguntzen kudeaketa
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa	Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra, Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza, eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra baimenari dagokionez.
Hartzaileak	Datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei lagako.
Gordetzeko epea	Emandako diru-laguntzaren azken e`pea justifikatu eta ordaindu arte.
Pertsonen eskubideak	Interesdunek beren datuak ikusi ahalko dituzte, eta aldatzeko edo ezabatzeko eskatu ahalko dute, baita horien tratamendua mugatu edo horren aurka agertu ere, datuak babesteko ordezkariaren bitartez.